

“OSO EGOKIA IRUDITU ZAIT “WIKIARI” GARRANTZI HANDIAGOA EMATEA”



Aitor Madrazo | San Benito Ikastola | DBH

Aitor Madrazo Lazkaoko San Benito Ikastolako “Sortzen” taldeko zuzendaria da. Talde horrek lortu ditu Kosmodiseako Grapho Planetan DBH kategorian puntu gehien.

Nola jaso du taldeak Ikono Planetaren aldetik jasotako saria?
Ilusio handiz, lan ona egin baitute.

Fase hau egiterakoan, zer iruditu zitzaion zailena?
Beren ideiak irudikatu eta besteentzat erakargarri bihurtzea.

Grapho Planeta Kosmodisea lehiaketako aurtengo edizioan txertatu den berritasuna da. Zer iruditzen zaizu fase berri hau txertatzea? Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu baduzue, oraingo faseen programazioa beste urteetakoak baino hobek eta okerragoak iruditu zaizkizue? “Wikiari” garrantzi handiagoa ematea egokia iruditu zait, hori erabiliz gauza politak egin baitaitezke. Hori kontuan izanda, aldaketa oso onuragarria iruditu zait.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

Beti bezala, ikasleek talde-lana egitea eta, horretarako, taldean lan egitearen garrantzia bere gain hartu behar dute.

Eta zeintzuk dira Kosmodisean parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?
Ikasle batzuk motibatzea eta lan egiten dezaten lortzea. Horrez gain, orokorrean ongi egin dute lan.

Nola egiten diozue aurre Kosmodisea 2011-2012ko datorren azken "Mito" faseari?
Bideoa txertatzea elementu motibatzailea izan da ikasleentzat. Beraz, ziur nago fase berri honi gogo handiarekin aurre egingo diotela.